

→ LAGUNDUKU ZAITUGU

Arazo bat dugula onartzea konponbidearen lehen urratsa da. Halaber, laguntza eskatu behar da, ludopatia bakarrik gainditzea oso zaila da eta. Zure inguruko pertsona asko zu laguntzeko prest daude (senideak, lagunak, lankideak...), bai eta osatze-prozesuan gidatuko zaituzten profesionalak ere.



→ ETA AUSAZKO JOKOEKIN ARAZOREN BAT IZANEZ GERO... ZER EGIN DEZAKET?

LAGUNTZA ESKATU, laguntzarik gabe oso zaila da ludopatia gainditzea.

→ ZURE SENIDE ETA LAGUNEN BABESA IZAN



LAGUNDU ETA BABESTU DITUEN INGURUNE bat izan dutenen esanetan, errehabilitazio-prozesua errazagoa egin zaie jasotako babes horri esker.

→ KONTSULTATU ZURE OSASUN-ETXEKO OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO EKIPOARI



1980tik ludopatia GAIXOTASUN gisa aitortua dago ofizialki, jokabidezko adikzioa baita. OSASUN PUBLIKOKO SAREAK lehen urratsak ematen lagunduko dizu.


Eskatu orientabidea OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUEI edo AUZOKO UNITATEEI.

→ ESKATU AUTOBEDEKUA EGIN DUTEN PERTSONEN ERREGISTROAN SARTZEA



ESTATU-MAILAKOA. Espainian online jokoen plataformetan sartzea galarazten du.

Joko-lokaletarako sarbidea arautzen du.




→ JOKOAREN ONDORIOZ ZORRAK BADITUZU, EFICAZ FITXATEGIAN IZENA EMAN DEZAKEZU




Jokabidezko eta ausazko adikzioak finantzatzeko bazterketa-fitxategian izena emateak ekimenarekin borondatez bat egin duten entitateetan

mailegu edo kreditu orotarako sarbidea mugatzen du.



→ HORREZ GAIN, ESPEZIALIZATUTAKO ELKARTEETARA JO DEZAKEZU. NAFARROAN HAINBAT DAUDE.



→ PREBENTZIORAKO TRESNA www.jolastualajokatu.org

Familien prestakuntza-premiei erantzuteko webgunea. Ausazko jokoei eta kirol-apustuei buruzko informazioa ematen du, nerabe eta gazteek errealitate horrekin duten harremana nolakoa den jakin ahal izateko. Jokoari eta nafar gazteei buruzko edukiak jasotzen ditu, gazteentzako eta familientzako jarraibide eta baliabideekin.

TRESNA EZAGUTU →




→ Erakusketa hau Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Aralar Elkartearen, arteko lankidetzaren emaitza da. Bi entitateek ausazko jokoei adikzioak prebenitzeko gauzatutako proiektu baten barruan egin da, eta prebentziorako eta hausnarketa sozialerako tresna izatea du helburu.



asociación
ARALAR
ELKARTEA

Normalean, terapia-taldeak eta arreta individualizatua konbinatzen dira eta familiei babesa ematen zaie. Gaur egun, Aralar elkarteak 300 lagun inguru artatzen ditu urtean. Horietatik 120 zuzenean kaltetuak dira, jokoarekin arazoak dituztenak, eta gainerakoak entitateak artatzen dituen senideak eta laguntza ematen duten pertsonak dira. Azken urteotan, prebentzioan ere lan egiten du.



DATUA

→ KONTAKTATU BEHAR BAGAITUZU



665 802 545

www.asociacionaralar.org



"Bi urte hauek oso gogorrak izan dira, gorabeheratsuak. Bidea ez da erraza, baina laguntzarekin apustuak nire bizitzatik kanpo uztea lortu dut. Mentalki askoz hobeto nago, lasai nago eta pertsona patxadatsua bilakatu naiz. Lehen beti urduri nengoan. Gaur zoriontsuagoa naizela eta nire bizitzaren kontrola berreskuratut dudala esan dezaket"

Mikel, Aralarren tratatutako pertsona



GEHIAGO JAKIN NAHI AL DUZU?